



1. LANABESA: IRAKASLEEN JARRERAK HEZKIDETZAREN IKUSPUNTUTIK.

Irakur itzazu arretaz ondorengo baieztapenak eta balora ezazu zure adostasun maila, 1etik (ez nago batere ados) 4ra (erabat ados nago).

Sexu bakoitzaren ezaugarri biologikoak ez dira diskriminazio-erabakigarriak.	1	2	3	4
Gizonek, berez, emakumeek baino erabakitasun handiagoz erantzuten dute.	1	2	3	4
Emakumeek gizonek baino gehiago baliatzen dute sena eta gutxiago arrazoimena.	1	2	3	4
Gizonezkoak senez emakumezkoak baino lehiakorragoak dira.	1	2	3	4
Sexuen arteko egiazko berdintasunak eta era guztietako diskriminazioaren kontrako arbuioak gure ikastetxeko zeharkako helburu izan behar dute.	1	2	3	4
Gaur egungo eskolako eredu mistoak ez du helburu hori lortzea laguntzen.	1	2	3	4
Gure ikastetxeak hezkidetzaren eredu baten bidez lan egin beharko luke.	1	2	3	4
Hezkidetzari dagokionez, ikastetxean baloratzen ez diren hainbat alderdi daude, esaterako, hizkera ez sexista erabiltzea.	1	2	3	4
Sexismoa gizartetik desagertu beharko litzatekeen jardute bat da.	1	2	3	4
Egun, gehiengoak onartzen du aukera berdintasuna, baina teorian soilik.	1	2	3	4
Ikastetxeetan ildo honi jarraiki lan egitea ez da zaila.	1	2	3	4
Irakasleek mesfidantza handiz onartzen dituzte berdintasunaren aldeko planteamenduak.	1	2	3	4
Neska-mutilak batera hezteak bakarrik, ez du berdintasuna sortzen.	1	2	3	4



Hezkidetza ez da bakarrik nesken mesederako.	1	2	3	4
Hezkidetza ez dugu soilik gai jakin batzuk aukeratuz lantzen.	1	2	3	4
Mutilak ez dira kanpoago geratzen hezkidetza eredian eredu mistoan baino.	1	2	3	4
Hezkidetzari buruzko lanak, hautemandako egoera sexistei aurre egiten lagundu dezake.	1	2	3	4
Era honetako auzien inguruko eztabaida ez da ohikoa lan-taldeetan.	1	2	3	4
Hezkidetza landuz gero, jarrera pertsonalak alda daitezke.	1	2	3	4

Item hauek erantzun ondoren, eztabaida itzazue balorazioak talde txikietan.

Ondoren, hezkidetzari dagokionez, jarri itzazu zein item egokitzen diren ikastetxearen errealitateari eta zeintzuk ez. Interesgarria izango litzateke erantzunak garatzea.

Egokitzen dena	Egokitzeko dagoena

ESKERRIK ASKO ZUEN LAGUNTZAGATIK